

# Manifestu Anitza

*"Aniztasunean dago edertasuna eta indarra."* Maya Angelou

*"Borrokaren helburu dugun askatasuna edozein izanda, berdintasunean oinarritutako askatasuna izan behar du."* Judith Butler

## ANIZTASUNAREN DEKALOGOIA

Jarriaian garatua dagoen manifestua ondoko abiapuntuko dekalogoan oinarritzen da:

- Manifestura atxikitzen garen guneak **aniztasunaren aldekoak** gara eta ezaugarri hau **gizartearen zeharkako ezaugarri ekidinezintzat** jotzen dugu.
- **Aniztasuna norberak norberarengan aurkitua** denez, positiboa izan behar du ezinbestean. **Balore bat da identitate, izaera eta maitasun ereduaren aniztasuna bera.**
- **Ezin daiteke** ulertu identitatea eta izaera **muga** daitezkeenik, positiboa eta gogobetegarria den edozein harreman **zigor** daitezkeenik ezta pertsonen arteko **hierarkia** posiblearik.
- Hierarkizazio historikoaren ondorioz dauden **gizarte desberdintasunen aurka** lan egingo duten guneak gara. **Ez ditugu** eskubide eta askatasun **berdintasunaren mehatxu edota urratzeak baimenduko.**
- Norbanakoek gure guneetan **toleranteak ez diren jarrerak erakustea ez dugu baimenduko, ezta erasorik** burutzea aniztasunaren aurka.
- Administrazioei **aniztasunaren onarpen, sustapen, bultzeta eta babesaren alde lan egitea** eskatzen diegu.
- Egun dagoen legediaren hobekuntza, aniztasunarekiko zaintza (ezagutzan, hezkuntzan eta begirunean oinarritua) eta erasoaren aurkako erabateko jarrera aldarrikatzen ditugu bide bezala.
- Jada martxan hasia dagoen **Gazteriari** ere eskatzen diogu aktiboki **jarrai dezan** aniztasunaren bultzeta jarreraren indar bat gehiago izaten, **maila pertsonalean eta kolektiboan ere.**
- **Gazteriari, maila pertsonal eta kolektiboan, aniztasunaren bultzeta jarreraren indar bat gehiago izaten jarrai dezan** eskatzen diogu.
- **Gazteria Gune Anitzak bilatu, aditzera eman eta sortzen** indar bat gehiago izatera animatzen dugu.
- **Aniztasuna positibotzat** jotzen duten gune **fisiko zein birtual orok Gune Anitza Zigilua izatea** dugu jomuga.

---

## Manifestu Anitza

Idatzi honen bitartez bizikidetzan oinarritutako oraina eraikitzeko konpromisoa hartzen dugu. Dokumentu honekiko atxikimendua erakusten dugun elkarte, talde, gunee, administrazio... etab.-ek aniztasuna errealtate ukaezintzat jotzen dugu eta honen garapenerako eskubide berdintasun eta askatasun errealaren aldeko apustua egiten dugu, hau baimenduko duen testuinguruaren eraikuntzan gure guneetatik hasiz.

Horretarako, bakoitzak eskura duen esparruan eta ahal duen neurrian, baina betiere zeharkakotasuna galdu gabe, eskubide berdintasunaren eta askatasunaren alde, azken batean, aniztasunaren defentsaren alde, lan egiteko konpromisoa hartzen dugu.

Gauzak horrela, lehen lana eta Manifestu Anitzarekiko atxikimendua adieraztearekin batera burutzen duguna, "gure gunea" aniztasunaren aldeko gune modura zaintzean eta eraberritzean datza. Hau dela eta diogu Manifestu Anitza, bereziki zerbait bada "Ongi etorri Manifestu" bat dela, inongo zalantzarik gabe.

### Aniztasunari Ongi Etorria:

Manifestuaren lehen orria eta ia agortu dugu "a" hitza, baina, zerri egiten diogu erreferentzia "aniztasuna" aipatzerakoan? Hain zabala den aterki honen pean kontuan hartzen ditugun guztiak uler daitezten, gure munduratzera, alegia, gure istorioen hasierara jo behar dugu.

Mundu honetara etortzen den edozeinek dakien lehenengotariko gauza da ***nor den bera***. Eta horretarako ez du ahotsa besterik behar. Izan ere, norberak, nolako izango den eta nolako pertsona izan nahi duen argi ez badu ere, haurtzarotik adieraz dezake bere identitatea, bere identitate hori; inposatua ez dena. Gerora etorriko dira nolakotasunaren buruhaustea, baina oinarria argi egon ohi da. Horrela, apika, estropezu eginez eta gure burua indartuz, gure izaera konfiguratzeko goaz.

Horrela, gure identitatearen muina sortuz goaz, jada oso gaztetik posible izanik norbere burua emakume, gizon, intersexual, pertsona ez bitar... gisa aurkeztea zalantzarik gabe. Garen moduan aurkeztea.

---

Lehenengo momentu honetan, jada **aniztasuna ukaezina da**.

Baina hau ez da hemen eteten. Honen ostean, gure bizitzan zehar, gure pertsonalitatearen, hau da, izaeraren eraikuntza dator. Eta hor, ahots batzuek diotenaren kontra, ez gara A ala B. **Pertsonak beste izaera daude munduan.**

Historikoki femeninotzat eta maskulinotzat jo diren ezaugarriak anabasan batu eta gure izaera konkretua sortzen dute. Ez daude patriarkatuak diseinaturiko %100ean maskulinoak diren gizonezkoak eta %100ean femeninoak diren emakumezkoak. Izaeraren atal, esparru eta zirrikitu bakoitza unibertso bat balitz bezala milaka kolorez konfiguratzeko dugu.

Ordea, ezin uka dezakegu oraindik ere badaudela "historikoki femeninoak" eta "historikoki maskulinoak" diren ezaugarriak, gorputzetik hasi eta pertsonalitateera ere badoazenak. Baina ez dugu uste hauek identitate bat konfiguratzeko dutenik ezinbestean, ezta honen ondoriozko hierarkia bat legitimoa denik.

Gune Aniztetan jarrera hau lekuz kanpo dago. Gune Aniztetan ulertzen dugu bakoitza bere istorio eta bere izaerarekin datorrela, edozein izanik bere identitatea eta emakume, gizon, trans\*... izateko era guztiak besoak zabalik hartzen ditugu.

Esan beharrik ez dago guretzat ez daudela identitate eta izaeren arteko hierarkia posiblerik. Guretzat ezinezkoa baita pertsona batek beste batek baino balio gehiago izatea edo norbait berarengandik banaezina den zerbaitengatik mespretxatua izatea.

Gauzak horrela, logikoa den bezala, maitasun era guztiak ere ongi etorriak dira. Sinergikoak, positiboak eta gogobetegarriak direnak ulertuta maitasun harreman bezala. Historikoki orientazio zein bikote eredu asko egon dira ezkutuan, jazarriak eta zigortuak izatearen arriskuarekin. Gune Anitza oraindik ere batzuetan badirauen logika honi, aurreiritziei eta jarrera ez tolerantzei debekatzen die sarrera.

Identitate, izaera, sexu-genero, gorpuzkera eta maitasun ereduak gero eta ugariagoak dira. Hasi da bitar inposatuaren bukaera eta badator inoiz desagerrarazi ezin izan duten aniztasunaren denbora.

Horregatik, gure abiapuntua, gure bizitzetako bezala, **aldekotasuna** da. **Positiboa, aurrera egiteko baliagarria eta hazteko balio izango gaituena.**

Esan bezala, gure identitate eta izaera ez dira aukeratzeko dugun zerbait, **aurkitzen dugun zerbait baizik.** Horregatik, **ezinezkoa zaigu anitzak ez izatea eta horregatik konfirmatu nahi dugu gure gune hau aniztasun honen aldekoa dela.**

Aniztasunaren aldekoa, aniztasuna era aske eta debekurik gabekoan bizitzera gonbidatzen duen gune bat eta honekin **konpromisoa** hartzen duena bizipen guztiak posible egingo duten **eskubideen defentsan.**

Horregatik hasi dugu manifestua bi aipu horiekin. Aniztasuna nahi dugulako, **baina ez edonola, ez baldintzatua.**

Ahotsei baino egoerei arreta ezartzen dion aniztasunaren ulerkerak errealitatearen konplexutasuna ahazten du. Aniztasuna ordeztu eta giza desberdintasuna agertzen da. Baina **gizarte desberdintasunaz aritzea aniztasunarekiko tratu txarra baimentzea, bultzatzea eta mantentzea** da. Eta hori ez da, ezertarako, defendatzen duguna.

Gure guneak ez dira karitate guneak. Berdinetik berdinerako guneak baizik. Ez da "normala ez denari" laguntzeko gunea; guztion elkarrengandik ikasteko gunea baizik. **Gure guneetan tratu desberdina eta beharrezkoa den babesaren gabezia salatu nahi dugu.**

Halaber, **aniztasunaren onarpena eta bultza, hala nola, honi lotutako aukera berdintasun eta askatasunaren bermea sine qua non** bat bilakatu nahi dugu. Gure guneetan badugu, baina gure gizartearen ardatz bilakatu nahi dugu, bereziki gazterian gero eta ikusgarriagoa den aniztasun hau beste edozein eskubide bezala babestu eta askatasunez garatzeko aukera ziurtatua egon dadin.

Hau esanda, manifestu hau sinatzen dugunok konpartitzen dugun aniztasunaren ulerkera eta egiten ditugun eskaerak daude jarraian:

---

Hartutako konpromisoak:

- **Askatasuna identitate, izaera eta orientazio arlotan**

Gune Anitzak ez du bizimodu eredurik inposatzen, ezta aurreiritziz gidatutako kanpo-interpretaziorik burutzen.

Pertsona bakoitzak bere identitatea ezagutu, adierazi eta era askean garatzeko aukera du. Hala, norberak bere izaera eta gorpuzkeraren konfigurazioaren jabe da eta beste inoren epaitik edo hertsaduratik at bizitzeko askatasun osoa du.

Era berean ulertzen dugu desiraren orientazioa eta honen bizipenari dagozkion aferak norberak bere senaren arabera bizi beharrekoak direla. Inposaketarik gabe.

- **Tratu eta aukera berdintasunerako eskubidea**

Abiapuntua askatasuna izanik, gazte guztiek beraien beharrak adierazteko eta hauek babestuak izateko eskubide osoa dute; derrigorrezkoa izanik hauen beharrak ziurtatzeko neurriak ezartzea eta "berdintasun formal"-era ez murriztea.

- **Aniztasunaren onarpena, sustapena eta zaintza**

"Izan zaitez zu" mezua oso ondo dago, baina "izan gaitzkeenari" buruz ere informazioa behar dugu. Aukera desberdinen ikusgaitasuna eta aukerak diren bezain duin egiteak gure diskurtsoetan ezinbestekoa da norberak bere bidea beharrezko duen besteen babes eta akonpainamenduekin egin dezan.

Gune Anitzetan ez gara aukeramenaren falazian erortzen. Jakin badakigu gutxiengoaren parte izatea ez dela erraza, bereziki, lehen aipatzen genituen bereziketengatik, eta gazteek dituzten behar hauek asetzeko ezinbestekoa da sostengua eta babesa ziurtatua izatea.

- **Erasoak gutziz debekatua daude**

Eta eraso moduan ulertzen dugu gutxiengo bateko partaide den edozeinen aurka, honen deserosotasuna eta ongizatearen urradura helburu izanik, burutzen den ekintza oro.

- Ez ditugu txiste, jarrera, irain eta portaera matxistak eta LGBTBI+fojokoak onartzen
- Ez ditugu jazarpen, abusu eta eraso fisikoak onartzen
- **Aniztasuna errespetatzen ez dutenek, ez dute gure guneetan lekurik**

---

Aniztasunari dagokionez gure eskaerak dira:

Bestalde, gure ateetatik at gelditzen direnei, ondokoa eskatzen diogu:

Administrazioei

- **Legediaren hobekuntza**

Identitatea, izaera, gorpuzkera eta desira ezin daitezke bereizitako legez babestu, guztiek duten jatorri komuna izanda, Lege Integral baten beharra dute, ez soilik eskubideen babeserako, baita hauen sustapenerako ere.

Emakume eta gizonezkoen berdintasunerako legediak egin ohi duen bezala berdintasunarekin, **aniztasuna zeharkako balore bilakatu behar da eta gizartea bera hau ardatz izanik pentsatu, berreraiki eta eraldatu.**

Egun daukagun legedia murriztegia iruditzen zaigu. Bai estatu mailan, bai autonomia erkidego mailan:

- Estatu mailako legedia:

- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-Indarkeriaren Aurka Oso-osoko Babesa Emateko Neurriei Buruzkoa:

- Genero Indarkeria kontzeptu juridikopean barne hartzen diren gertakariak ez dira nahiko. Bikote testuingurutik at erasotuak diren emakumeak ez baititu barne hartzen eta babes gabe gelditzen dira bizitako biolentzia estrukturalaren aurrean.

- Legediaren aplikazioan, hezkuntzari dagokionez, zeharkakotasuna ziurtatzeko esfortzua eta aniztasunaren bultzan laguntzazkoak diren beste hainbat hezkuntza esku-hartzeekin koordinazioa ere faltan botatzen da.

- 3/2007 Legea, martxoaren 15koa, Pertsonen Sexuaren Aipamena Erregistro Zibilean Zuzentzea Arautzen duena

- Lege honek aurrerapausoa suposatu bazuen ere, aurretiaz zegoen ezinbesteko erregistro zibilaren zuzenketarako

auzitegi azterketak alde batera uzten dituelako, oraindik ere gutxiegi da.

- Erregistro aldaketa aukera oraindik ere patologizazio prozesu baten onarpenera baldintzatzen duen legea baita, hauek derrigortuz ez soilik tratamendu hormonalera, baita psikiatriko eta psikologikora.
- Horregatik, lege bat eskatzen dugu zeina trans\* errealitatearen akonpainamendutik eta ez bere patologizaziotik enfokatzeko dena. Laguntza zerbitzuak eskaintzen dituen baina ez duena bihurtzen laguntza edo asistentzia ezinbesteko baldintzan erregistro aldaketaren onarpenerako
- 3/2007, Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko
  - Lege honetan ez da aniztasunaren isla oso bat agertzen. Eraldatzen dituen bestelako legeetan "orientazio sexuala" aipatzen da. Ordea, ez du aniztasunaren erakusle diren beste egoera batzuen aipurik egiten, identitatea kasu. Hala, aniztasunarekin harremana duten kontzeptuak ez dira era integral eta egituratu batean barne hartzen.
  - Are gehiago, egun, delitu LGTBI+ fobikoek "gorroto delitu" markoan dira ikuskatuak, beraien ezaugarri berezia ez azpimarratua izatearen arriskuaz. Era honetara, Emakume eta Gizonezkoen arteko berdintasunetik bananduta gelditzen dira, guztiz lotua doazenean.
  - Berrero ere, zeharkakotasunaren eta hezkuntzaren arloko koordinazio egokiaren segurtasunerako mekanismoen faltaz hitz egin behar dugu.
- 2/2010 Lege Organikoa, martxoaren 4koa, Sexu- eta Ugalketa Osasunari eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzkoa



- Aipatutako legediak, aniztasun sexualari erreferentzia egiten badio ere, ez du gehiago sakontzen kontzeptu honetan.
  - Hau dela eta, LGTBI+ errealitatea, hala, sexualitatearen arloan gertatzen diren beste hainbat aniztasun kasu kontuan izatea eta hezkuntzaren barnean txertatzea ziurtatzeko mekanismoak dira eskatzen ditugunak
  - Era berean, legeak adierazten duen bezala, Eskubide eta Askatasun Berdintasunaren azken helburua dena ziurtatzea eskatzen dugu. Burutzen den hezkuntza prozesuan (bai esku-hartze eran eta bai zeharkakoan) bi markoen arteko zubiak eraikitze formakuntza eskainiz.
- o Euskadiko Autonomia Erkidegoko legedia:
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako:
    - Berriro ere, Autonomia Erkidegoko legean "orientazio sexuala" bereizketarako beste faktore bezala aurkeztu da, inongo harremanik ez balu bezala Emakume eta Gizonezkoen arteko desberdintasunaren arrazoiarekin.
    - Hezkuntzaz hitz egiterakoan, ez da sakontasunez aztertzen Emakume/Gizon estereotipoen arazoa eta, ondorioz, Genero Indarkeriaren prebentzioan enfasia ezartzen da, bestelako biolentziak ahaztuz (LGTBI+obikoak kasu).
  - 14/2012 Legea, ekainak 28koa, Transexualak Genero Identitateagatik Ez Baztertzeari eta Haien Eskubideak Aitortzeari Buruzkoa
    - Ezinbesteko legedia izanik barne hartzen dituen neurriengatik, ez da ikusten bestelako legediekin sarerik

eraikitzen duenik, ezta hezkuntzan Transexualitatea lantzeko mekanismoak argi uzten dituenik

- Ondorioz, gure eskakizuna da:
  - Lehenik eta behin, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunaz hitz egiterakoaren markoaren zabaltasuna handitzea. Emakume eta Gizonez hitz egiterakoan barnean dauden errealitate anitzak txertatua egon daitezten eta egoera bakoitzak sortzen duen interseksionalitatean azentua jarri ahal izateko.
    - Ondorioz, legediak cis, trans\* eta esperientzia ez bitar guztiak kontuan izan beharko lituzke; Emakume eta Gizonen arteko berdintasunaren helbururako parte gisa. Alegia, **pertsonen** edo **norbanakoen** arteko berdintasunaz eta **identitatearen garapen askeaz** hitz egitea ezinbestekoa da.
    - Era berdinean, legediak egun daukagun **dokumentazio sistemaren** eraldaketarako bultzatza izan beharko litzateke. Egun gero eta ezagunagoak baitira arazoz beteriko esperientziak "cis" eredu dikotomikoaren baitan ez dauden pertsonen bizitzetan.
  - **Identitate, gorpuztasun eta orientazioagatik** bizi diren bereizketa egoeren aurkako neurriak **Berdintasunaren aldeko lege orokor** batean txertatzea. Ezinbestean lotuta baitoaz "sozialki" eta "historikoki" Emakume eta Gizon izateko egon diren eta badirauteen eskakizunak eta estereotipoak.
  - **Genero Indarkeria kontzeptu murriztua zabaltzea**. Esan bezala, gizonek emakumeei (emakume izateagatik) egindako beste eraso mota batzuei zabaldu behar da (bortxaketak, erailketak...). Bide batez, **legedian heterosexualak ez diren testuinguruetan ematen diren antzeko biolentziek jada baduten larrigarria azpimarratzea beharrezko ikusten dugu**. Egun badaudelako behar duten babesa aurki ezin ditzaketen biktimak.

- **Hezkuntzaren hobekuntza.** Hezkuntza sisteman txertatzea Aniztasunarekin lotutako baloreen hezkuntza integrala. Era honetara, beharrezkoa den koordinazioaz ezinbestekoak diren gai guztiak lantzeko hezkuntza apustua eginik. Ezin baitaitezke Emakume eta Gizon izateko estereotipo eta bereizketak eraldatu hauek sakontasunez aztertu gabe.

- **Presentzia Hezkuntzan**

Esan bezala, egun hezkuntza arloan ez da eskatzen dugun **aniztasunaren zeharkakotasuna ematen**. Talde, ikuspegi eta gai desberdinetatik jorratzen da aniztasuna (hezkidetzeta, sexu-heziketa, bereizketa ekiditeko heziketa...), baina ez zaio beharrezko sakontasuna ezta zeharkakotasuna ematen eta, beti, aparteko parentesi modura agertzen da.

Beharrezkoa da Identitate, izaera eta desira aniztasunaz, hala, eskubide eta askatasun berdintasunaz hitz egiterakoan marko zabal eta egituratu bat eskaintzea, baita hezkuntzan ere. Emakume eta Gizonen arteko berdintasuna, estereotipo eta bereizketa desberdinak, orientazio, identitate eta gorpuzkera arrazoiengatik ematen den bereizketa... ezinbestean lotuta daude eta hala egon beharko lukete hezkuntza sistemak eskaintzen duen formakuntzan ere.

Egun ematen den hezkuntza eskaintzaren eraldaketa guztiz beharrezkoa da ikusgaitasuna, duin egitea eta normalizatzea, azken hau ulertua onarpen eta tratu berdina bezala.

Honetaz gain, ikastetxetan eta hezkuntza gunen guztietan **zeharkakotasuna** zaindu behar da, horretarako beharrezkoak diren **formakuntza eta eraldaketa guztiak** eginez.

Ondorioz, era antolatuan txertatu behar dira ezinbestean ondoko kontzeptuak eta, guztiak programa berdinen barnean ez badaude, partaide diren sail edo eragile desberdinen koordinazio ezinbestekoa da:

- Emakume eta Gizon izateko eredu anitez eta berdintasun eta askatasun eskubideaz hitz egitea

- Cis, Trans\* eta esperientzia ez bitarrak (gorpuzkera ez bitarrak, identitate ez bitarrak...) sakonki ezagutzera ematea. Hala, beraien barnean dauden kasuistika desberdinak argi uztea.
- Identitate, izaera, gorpuztasun eta orientazio aniztasuna sakonki ezagutzera ematea. Aurretiaz bezala, kasuistika eta egoera bakoitzak dituen ezaugarri konkretuak ezagutzera ematea.
- Norberak bere garapen pertsonal askerako beharrezko dituen tresnak helaraztea (trebetasun sozialak, adimen emozionala, asertibitatea...). Era berean,
- **Oroitzapenezko datak eta ekitaldiak sustatu**

Ezin dugu berriro hutsetik hasi, historia bertan egongo ez balitzateke bezala kontu eske.

Edozein gutxiengoetikiko begiruneak eskatzen du oroitzapenezko datak eta ekitaldiak ospatzea. Batez ere, historian zehar egon den aniztasunaren aurkako erasoen memoria galdu ez dadin eta, bereziki, LGTBI+ kolektiboak jasan dituenak ikusarazteko.

Ez da soilik ekitaldiok "baimentzea", berriro errepikatuko dugu, hauek Administrazio Publikoetatik **sustatzea eta bultzatzea ezinbestekoa da, aldekotasun jarrera gizartera dadin.**

- **Eskubideen bortxaren eta erasoen aurka ekin**

Ezin baimendu daiteke gune publiko zein pribatutan, hala nola, gure legedian bertan, aniztasuna kontuan ez hartzea edota era gutxiesgarri baten tratatzea.

Halaber, norbanakoek edota talde desberdinek burutzen dituzten aniztasunaren aurkako eskubide murriztapenek eta erasoek ere erantzun espezifiko bat behar dute. **Tratu diskriminatzaile eta gorroto delituek zigor bereziak eskatzen dituzte eta hauek orain dauden markotik baino haratago duten tipifikazioa behar dute.**

Gainera, beste indarkeria diskriminatzaile batzuekin egiten den bezala, gizarte mailan ere **errefusa erakusteko joera bultzatu behar da.**

- **Ikerketa eta datu bilketan sakondu**

Egun **ez dugu** ikerketak burutzen dituen **Behatoki integralik**, ezta aniztasunaren inguruko **ikerketa ildorik**. Honek ezin dezake berdin dirau.

**Errealitatea sakonki ezagutu beharra daukagu honen gainean ekin ahal izateko.** Estereotipoak apurtu, ematen diren diskriminazioak eta erasoak ezagutu, testuinguru eta faktore sozioekonomiko desberdinen arabera ematen diren egoera konkretuak ezagutu... informazio honen bitartez landu ditzakegun helburuak ugariak dira.

### Gazteriari eta, nola ez, gizarteari

- **Norberatik hasi lana**

Gizartea eraldatu aurretik, bakoitzak bere burua aztertu behar du. Aniztasunaren alde egin dezakedan guztia egiten ote dut? Ba ote daude alde batera utzi beharko nituzkeen ohiturak? Nik ere nire izaeran propio ditudan aukera guztiak baimentzen eta garatzen al ditut?

Norberak bere buruarekin eta bere ingurugirorik zuzenarekin berrikustea egin ostean, esparru zabalagoetara pasa ditzake bere helburuak; jada finkatuak eta ondo ezagunak baititu.

- **Ahalduntze kolektiborako lana**

Gune fisiko zein birtual guztiak gure egin behar ditugu. Ahalduntzea banaka, taldeka eta sarean izan behar du. Bakoitza egiteko gai den pausuak partekatu eta besteenarekin baturan gizarte ahalduntzea eraikiz joan.

- **Aktiboki aldeketasuna erakutsi**

Agian ez duzu zure burua kolektibo baten barnean ikusten, agian uste duzu zure bizitza "normatiboa" deritzon horretatik oso gertu dagoela; baina **aliatu bat izan zaitezke.**

Aldekotasuna erakustea eta aniztasunaren eskubideen defentsan indar bat gehiago izatea uste baino errazagoa da. Egunerokotasuneko keinuak zaindu eta oroitzapenezko data eta ekitaldietan parte-hartzea jada bada zerbait. Era berean, garrantzitsua da eskubideen urradura ematen denean, beste edozein kasutan egingo zenukeen bezalaxe, defentsarako ekitaldietara bertaratu.

Berdin dio ezagunak dituzun ala ez kolektibo desberdinak eta hauetan parte-hartzen dutenak, eskubideez hitz egiten dugunean Giza Eskubideez ere hitz egiten ari gara. Eta horiek guztiok batzen gaituzte.

**Ez onartu aniztasunaren aurkako erasorik**

Ez soilik era sinboliko eta kolektiboetan, baita pertsonaletan ere. Jarrera edo portaera diskriminatzaileen edota erasoen testigu bazara, **lagundu! Eten ezazu egoera hori!**

- **Bilatu, ezaguzu eta sor itzazu zure Gune Anitzak!**

Gune Anitzak bere izaera beste guztiena errespetatuz eta onartuz garatu nahi duten guztientzat irekiak daude. Edozein identitate, izaera eta maitasun eredu ongi etorriak dira eta gonbidatuak daude.

Gainera, zure guneak ere "Gune Anitza"k izan daitezke, aniztasuna balore gisa baduzu manifestu honi atxikitzea besterik ez baituzu egin behar.

Gainera, zure ingurugiroko edozein gune fisiko zein birtual "Gune Anitz" izan daiteke, bertan manifestu honekiko atxikimendua besterik behar ez baita.

Aniztasunaren eskubideen aldeko lanean bat gehiago zara eta aldaketa zure esku ere badago! Animatu eta aniztasunean murgil zaitez!

*Manifestu hau, 2016ko ekainean argitaratzen da. Honen berrikusketa eta eraldaketak urtebete barru egiteko geratuz E28a aprobetxatuz.*

## Manifestu Anitzaren Gida kontzeptuala

- **Ahalduntzea**

Kontzeptu hau azaltzeko, Marcela Lagarderen hitzen laburpen batera joko dugu (gaztelaniaz):

*“El empoderamiento es el conjunto de procesos vitales definidos por la adquisición o invención e interiorización de poderes que permiten a cada mujer o colectivo de mujeres, enfrentar formas de opresión vigentes en sus vidas”*

Gure kasuan, ahalduntze prozesua maila indibidualean eta kolektiboan bizi daitekeen prozesu gisa ikusten dugu. Gizarte ez parekide baten ondoriozko berezko murrizketetatik askatzea nahi duen edozeinek bizi dezakeena.

- **Akonpainamendua**

Akonpainamenduaz hitz egiten dugu pertsoneri (hauen artean, gazteei) emandako arretaren jarrera hauek hartzen dituzten informatutako erabakiekiko errespetuan oinarritzen direnean. Aukeratutako bidean zehar akonpainatzean oinarritutako arreta.

Aurrerago ikusiko dugun bezala, orain momentuan, errealitate desberdinen patologizazioak aipatutako arreta ezinezko burutzen du, garapen pertsonaleko aukerak eta aniztasuna bera ere mugatuz.

- **Aniztasuna**

Aniztasuna ulertzeko gure era Joserra Landarroitajauregui-ren “Género genital o la obligación legal de estar genitualmente clasificado” lanaren ondoko esaldiarekin uler daiteke (gaztelaniaz):

*“La diversidad sexual no es una característica de la cultura, sino una propiedad del sexo”*

Alde batera utzita EGK-k ez duela “aniztasun sexuala”z hitz egiten, baizik eta nahiago izan duela hitza abizenik gabe aurkeztea, bat gatoz pentsatzerakoan aniztasuna norberaren existentzia pertsonalean berezko duen eta ukaezina den zerbait dela. Ondorioz, landu daitekeen balore bat dela.

- **Cis**

”Cis” kontsideratzen da jaiotzean esleitutako sexu/genero berdinean adierazten den, alegia, bizi eta duen pertsona oro. Hau da, jaiotzerakoan emakume gisa identifikatuak izan ziren emakumeak eta jaiotzerakoan gizon moduan identifikatuak izan ziren gizonezkoak.

- **Duintu eta normalizatu**

Bikote banaezina dira. Normalizaziorik gabe, aurreiritzien eta estereotipoen arriskua dugu duintze saiakerak badaude ere. Honen ezean, estereotipoak eta desberdintasunaren ondoriozko bitzta eredu normatiboak inposatzearen saiakeraren arriskua izan dezakegu.

Ezinbestekoa da duintzea eta normalizazioa orekatzea, edozein bizi eredu bizitzeko duina eta besteak bezain normala izatea.

- **Eskubide eta askatasunen berdintasuna**

Beharrezkoa zaigu azpimarratzea bai berdintasun formalaz, bai errealaz hitz egiten dugula. Ulertzen dugulako historikoki eman den diskriminazioa ez dela segituan desagertzen aldaketa legezko soilagatik, baizik eta gizarteak lan sakonagoa behar duela.

- **Genero Indarkeria eta Indarkeria Matxista**

Bere jatorria teoria feministan badago ere, ”Genero Indarkeria” kontzeptua zentzu legezkoan darabilkigu, alegia, gizonezko batek emakume baten aurka burututako indarkeria bezala hau bikote edo bikote ohien artean ematen denean. Kontzeptu hau, horrela ulertua, urri gelditzen zaigu emakumeen aurka emakume izanagatik burutzen diren hainbat Indarkeria Matxista eredu kanpo uzten baititu.

- **Gizonak eta Emakumeak**

Inozoa badirudi ere, bi identitate hauen definizioan gelditzea beharrezkoa dugu. Izan ere, emakume eta gizonezkoek hitz egiterakoan argi utzi nahi dugu erreferentzia egiten diegula beraien burua era horretara kontuan hartzen duten pertsonaz gabiltzala. Identitate esleitze sistema oroz kanpo.

- **Gorpuzkera**

Uste dugu aniztasuna ez dela soilik gorpuzaren atal batean gertatzen (pertsona intersexualez esan ohi den bezala), baizik eta gorpuzaren batura bera da konkretua, anitza eta errepikaezina dena..

- **Identitatea**



Identitate gisa ulertzen dugu, aurreko definizioen ondorioz, pertsonak adieraztea erabakitzen duen hori horrela sentitzen eta bizitzen duelako.

- **Indarkeria LGTBI+fobikoa**

Indarkeria Matxisten eta hauen arteko paralelismo ideologikoa argi badugu ere, beharrezkoa iruditzen zitzaigun desberdintasuna adieraztea esplizituki. Alegia, hauek dira LGTBI+ kolektiboen partaide diren pertsonen aurkako indarkeriak.

- **Intersekzionalitatea**

Intersekzionalitateaz hitz egitea da bereizketa faktore desberdinek batzerakoan sortzen duten egoera konkretuaz hitz egitea, kontuan izanda egoera konkretu bakoitzak, bereizketakoak ez diren faktoreekin batuta, oso egoera desberdinak eragin dezaketela.

- **Izateko erak**

Nahiz eta hasieran badirudien rolei erreferentzi egiten diegula, kontuan izanda gorpuztasuna izaera garatzeko beste esparru bat bezala baloratu eta azpimarraten dugula, nahiago dugu kontzeptu honen erabilera.

- **LGTBI+**

Sigla hauek aitzindariak izan ziren LGTB siglen osteko ondoko belaunaldia dira baina jada jaso dituzte ere hainbat proposamen (LGTBI+AQ, GSEAI<sup>1</sup>, MOGI<sup>2</sup>...).

EGKn kritikak ulertzen dira, ordea, siglen eraldaketa ekiditeko hainbat argudio daude:

- **Siglen fama eta hedapena:** hauek dira orokorrenak eta ezagunenak.
- **Kaltetuenekiko begirunea:** ez-normatibitatearen eremuan badaude beraien identitateen ikusgaitasunak arrisku handiago baten menpe ezarrarazten dituen norbanakoak badaude; lesbiana, gay, trans\*, bisexualak... Honetaz gain, garrantzitsua da kontuan izatea hauek historikoki jasan duten bereizketa. Bi arrazoi hauek kolektiboen aipu esplizitua beharrezkotzat hartzea garamatza.
- **”+”aren arrazoia:** kontzeptu bakoitzaren atzean dauden errealitate anitzak ikusgarri bilaka nahi ditugu sinbolo honen bitartez.

- **Orientazioak**

---

<sup>1</sup> Genero, Sexualitate eta Erromantze Anitzak eta Intersexualitatea

<sup>2</sup> Marginatutako Orientazio, Genero eta Intersexualitateak

Kontzeptu honen barruan ulertzen ditugu harremanak bizitzeko dagoen aukera benetan zabala, hauen bikote-ereduak edozein direlarik.

- **Patologizazioa**

Patologizaziotzat jotzen da aniztasunaren onarpenerako bide bakarra hau medikuntza sistemaren partetik ikuskaritza eta modifikazioaren beharraren baldintzapean denean.

Hau da trans\* eta intersexualek jasotzen duten tratua. Hauei identitatearen garapen konkretu bat exijitzen zaie, hala nola, identitate konkretu baten hautaketa. Ez da posible ikusten erregistro aldaketa bat gorputz aldaketarik egin gabe orain daukagun legedian (hormonazioa, kirurgiak... beharrezkoak bueltatzen dira, nahiz eta ez dauden beti osasun sistemagatik babestuak).

- **Pertsona Ez Binarioak**

Esan ez genuen bezala nortzuk diren emakumeak eta nortzuk diren gizonezkoak, ez dugu esango nortzuk diren Pertsona Ez Binarioak; baina bai beharrezkoa iruditzen zaigula hauek aipatzea beraien buruak horrela bizi dituzten pertsonak baitaude.

- **Trans\***

”Trans\*” kontzeptua beraien bizitzako momentu batean trantsizio egoera batean egon eta hau nahi/ahal izan duten bezala bizitzearen esperientzia izan duten pertsonak barne hartzeko dagoen kontzepturik barne-hartzaileena da. Hauek izanda, transexualak, transgenderoak edota beste aukera batzuk; ”cis” moduan bizitzeari ezetz esan dioten pertsonak dira.